# IRAKASGAIEN PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN LABURPENA 2025-2026

## BENTADES IKASTETXEA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Ikasgaia/ Arloa** | NATUR ZIENTZIAK | | |
| **Irakaslea(-k)** | Eneritz Fruniz eta Ainoa Rios | **Ikasturtea** | **2025 / 2026** |
| **Zikloa/ Maila** | DBH2 | **Talde kopurua** | 2 |

## JUSTIFIKAZIOA

Programazio hau irakasgai bakoitzeko testuingurua kontuan hartuta garatu da, eta helburu nagusia ikasleen ikaskuntza esperientzia ahalik eta eraginkorrena izatea da. Lehenik eta behin, ikasleen abiapuntua aztertzen da, bakoitzaren gaitasunak, aurrezko ezagutzak eta behar bereziak identifikatuz. Ondoren, gelaren egoera eta ikastetxearen errealitate zehatza kontuan hartuta, programazioak ikaskuntza esanguratsua sustatuko duten estrategiak proposatzen ditu.

Urtez urte egindako memoriak eta hobekuntza-proposamenak erreferentziatzat hartuta, programazio honek aurreko ikasturteetan identifikatutako hutsuneak zuzentzea eta indarguneak areagotzea du helburu. Ikasleen garapen akademikoa, soziala eta pertsonala optimizatzeko, programazioa etengabeko ebaluazioaren bidez egokitu eta hobetu egingo da, beti ere, kalitatezko hezkuntza eskaintzeko konpromisoari eutsiz.

| **FUNTSEZKO KONPETENTZIAK** | **OINARRIZKO JAKINTZAK** |
|---|---|
| Hizkuntza Komunikaziorako konpetentzia (HKK)<br>Konpetentzia Eleaniztuna (KE)<br>Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingenieritzarako konpetentzia (STEM)<br>Konpetentzia Digitala (KD)<br>Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa (KPSII)<br>Herritartasunerako Konpetentzia (HK)<br>Ekintzailetza Konpetentzia (EK)<br>Kontzientzia eta adierazpide kulturalerako Konpetentzia (KAKK) | Ikus anexo |

**KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK eta EBALUAZIO IRIZPIDEAK (LINK)**

| | |
|---|---|
| 1. Fenomeno eta prozesu natural nagusien kausak ulertzea eta erlazionatzea, arrazoibide zientifikoa, legeak eta teoria zientifikoak eta/edo pentsamendu konputazionala erabiliz, problemak ebazteko edo eguneroko bizitzako prozesuak azaltzeko. | 1.1 Eguneroko fenomeno natural garrantzitsuenak azaltzea, printzipio, teoria eta lege zientifiko egokien arabera aztertzea eta adieraztea argudioak erabiliz. (A B1 C1 C2)<br>1.2 Prozesu naturalak azaltzea, ereduen eta diagramen bidez irudikatuz, eta, beharrezkoa denean, ingeniaritzako diseinuaren urratsak erabiliz (arazoa identifikatzea, miatzea, diseinatzea, sortzea, ebaluatzea eta hobetzea), tresna analogikoen eta digitalen bidez. (A B1 C1)<br>1.3 Problemak ebaztea edo prozesu naturalak azaltzea, emandako ezagutzak, datuak eta informazioa, arrazoibide logikoa, pentsamendu konputazionala edo baliabide digitalak erabiliz. (A B1 C1 C2)<br>1.4 Fenomeno naturalei buruzko problema baten soluzioa kritikoki aztertzea, beharrezkoa denean birformulatuz. (A) |
| 2. Informazioa identifikatzea, lokalizatzea eta hautatzea, plataforma teknologikoak eta askotariko baliabideak eraginkortasunez erabiliz, zientziekin lotutako galderak banaka zein elkarlanean ebazteko. | 2.1 Modu egokian eta moldakorrean lan egitea askotariko baliabideekin, baliabide tradizionalekin eta digitalekin, gaiak ebaztean, informazioa kontsultatzean eta edukiak sortzean, iturri fidagarrienak irizpidez hautatuz eta behar bezala aipatuz. (A)<br>2.2 Informazioa oinarri zientifikoarekin aztertzea, sasizientzietatik, gezurretatik, funtsik gabeko sinesmenetatik eta abar bereiziz, eta horien aurrean jarrera eszeptikoa edukiz. (A)<br>2.3 Eraikuntzako eta hezkidetzako elkarrekintzak ezartzea, jarduera zientifikoetan kolaborazio-lanaren berezko estrategiak erabiliz, aniztasuna errespetatuz eta inklusioa bultzatuz. (A) |
| 3. Informazio eta datu zientifikoak interpretatzea eta transmititzea, eta horiei buruzko argudioak ematea, hainbat formatu erabiliz zientzien kontzeptuak eta prozesuak aztertzeko. | 3.1 Kontzeptuak definitzea, eta fenomeno eta prozesu zientifikoak deskribatzea, informazioa hainbat formatutan aztertuz (ereduak, grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, web-orriak...), jarrera kritikoa mantenduz eta ondorio arrazoituak eskuratuz. (A)<br>3.2 Informazio zientifikoa modu argian komunikatzea, hizkuntza-egitura, terminologia eta formatu egokiak erabiliz (ereduak, grafikoak, taulak, bideoak, txostenak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, eduki digitalak...). (A) |
| 4. Behaketak galdera moduan adieraztea, hipotesiak formulatzea eta hipotesi horiek esperimentazio zientifikoaren bidez frogatzea, eta ikerketa-proiektuak garatzea, metodologia zientifikoen urratsei jarraituz zientziekin zerikusia duten alderdiak ikertzeko. | 4.1 Egiaztatzeko modukoak diren galderak eta hipotesiak planteatzea, metodo zientifikoak erabiliz eta fenomeno naturalak azaltzen eta horiei buruzko iragarpenak egiten saiatuz. (B1 C1 C2)<br>4.2 Fenomeno zientifikoei buruzko esperimentuak egitea eta datu kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak hartzea, baliabide, tresna analogiko eta digital, edo teknika egokiak zuzen eta gero eta autonomia handiagoz erabiliz. (A B1 C1 C2)<br>4.3 Esperimentazioan, ikerketan edo ikerketa zientifikoko proiektuan lortutako emaitzak interpretatzea, beharrezkoa denean, tresna matematikoak eta teknologikoak erabiliz. (A)<br>4.4 Esperimentazioaren, behaketaren eta ebidentzia zientifikoen bidez lortutako informazioa eta ondorioak aurkeztea, formatu analogiko eta/edo digital egokia erabiliz (taulak, grafikoak, txostenak, etab.). (A) |

| | |
|---|---|
| 5. Zientzien oinarrizko erregelak eta arauak baliatzea, IUPACen hizkuntza, hizkuntza matematikoa, neurketa-unitate zuzenak eta laborategia segurtasunez erabiliz, hizkuntza zientifikoaren izaera unibertsala eta ikerkuntzan eta zientzian hainbat herrialde eta kulturaren arteko komunikazio fidagarriaren beharra aitortzeko. | 5.1 Komunitate zientifikoarekin eraginkortasunez komunikatzea, zientziaren oinarrizko arauak behar bezala erabiliz, neurketa-unitateen erabilera, tresna matematikoak eta formulazio-eta nomenklatura-arauak barne. (A B1 C1 C2)<br>5.2 Erabilera zientifikoko instalazioekiko errespetua babestea, zientziaren espazio espezifikoen —hala nola zientzien laborategia—erabilera-arauak praktikan jarriz. (A B1 C1 C2) |
| 6. Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta osasunean dituzten ondorioak aztertzea, zientzien funtsetan oinarrituz, garapen iraunkorrarekin bateragarriak diren eta planetaren osasun indibiduala eta kolektiboa mantentzea eta hobetzea ahalbidetzen duten ohitura arduratsuak sustatzeko eta hartzeko. | 6.1 Ekintza jakin batzuek ingurumenean eta izaki bizidunen osasunean dituzten ondorioak ezagutzea, zientzien oinarriak eta irizpide zientifikoak aplikatuz. (B4)<br>6.2 Biodibertsitatea babestearen, ingurumena zaintzearen, inguruneko izaki bizidunak babestearen, garapen iraunkorraren eta bizi-kalitatearen garrantziaz argudiatzea, datu eta arrazoi zientifikoak erabiliz. (A B3)<br>6.3 Ingurune hurbilean ohitura jasangarriak proposatzea eta hartzea, norberaren eta besteen jarduerak aztertuz eta norberaren arrazoibideetan, eskuratutako ezagutzetan eta eskura dagoen informazioan oinarrituz. (A C3)<br>6.4 Ohitura osasungarriak eta arduratsuak proposatzea eta hartzea, norberaren eta besteen ekintzak aztertuz (elikadura, higienea, gorputz-jarrera, jarduera fisikoa, pertsonen arteko harremanak, atsedena, pantailekiko esposizioa, estresaren kudeaketa, sexu-praktiketan segurtasuna, substantzien kontsumoa...),eta norberaren arrazoibideetan, eskuratutako ezagutzetan eta eskura dagoen informazioan oinarrituz. (B3 B4 C3)<br>6.5 Inguruneko paisaia eta ekosistemak interpretatzea, bertako elementuak aztertuz eta giza ekintza jakin batzuen ingurumen-inpaktuari buruz hausnartuz. (C3 B5) |
| 7. Zientzia etengabe aldatzen eta eboluzionatzen ari den eraikuntza kolektibo gisa ulertzea eta balioestea, non zientzian diharduten pertsonek parte hartzeaz gain, gizarteko gainerako pertsonekiko elkarrekintza ere eskatzen duen, aurrerapen teknologikoan, ekonomikoan, ingurumenekoan eta sozialean eragina duten emaitzak lortzeko. | 7.1 Zientzia etengabe eraikitzen ari den prozesua dela eta zientziak teknologian, gizartean eta ingurumenean dituen ondorioak onartzea eta balioestea, zientziako gizon-emakumeen analisi historikoaren eta aurrerapen zientifikoen bidez. (A B1 C1 C2 )<br>7.2 Ingurunean ingurumen-eta gizarte-premia garrantzitsuenak detektatzea, horiei soluzio jasangarria, sortzailea eta genero-irizpidea kontuan hartuta emanez. (A C2) |
| | |
| | |

## SEKUENTZIA eta DENBORALIZAZIOA

### 1. ebaluaketa

| Unitatearen / Ikas egoeraren izenburua / Zer ebaluatuko da? | BALIOAK | | <u>Konpetentzia espezifikoak laburtuta</u> |
|---|---|---|---|
| 1 FROGA<br>1 Gaia: Masa, bolumnea eta | 40% | ☑ | Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa aurkitzea eta aztertzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa interpretatzea, transmititzea eta argudiatzea |
| | | ☐ | Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatu eta ikerketa proiektuak garatzea |

| | | | |
|---|---|---|---|
| dentsitatea | | ☑ | Zientzien oinarrizko erregelak eta arauak ezagutzea eta erabiltzea |
| | | ☐ | Ingurumenenarekiko arduratsuak eta osasungarriak diren ohiturak izatea |
| | | ☐ | Zientziaren bilakaera ulertzea eta balioestea |
| 2 FROGA<br>2 Gaia: Egoera aldaketak | 40% | ☑ | Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa aurkitzea eta aztertzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa interpretatzea, transmititzea eta argudiatzea |
| | | ☑ | Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatu eta ikerketa proiektuak garatzea |
| | | ☑ | Zientzien oinarrizko erregelak eta arauak ezagutzea eta erabiltzea |
| | | ☐ | Ingurumenenarekiko arduratsuak eta osasungarriak diren ohiturak izatea |
| | | ☐ | Zientziaren bilakaera ulertzea eta balioestea |
| EGUNEROKO LANA<br>Liburuko ariketak | 10% | ☑ | Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa aurkitzea eta aztertzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa interpretatzea, transmititzea eta argudiatzea |
| | | ☑ | Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatu eta ikerketa proiektuak garatzea |
| | | ☑ | Zientzien oinarrizko erregelak eta arauak ezagutzea eta erabiltzea |
| | | ☐ | Ingurumenenarekiko arduratsuak eta osasungarriak diren ohiturak izatea |
| | | ☐ | Zientziaren bilakaera ulertzea eta balioestea |
| JARRERA | 10% | ☑ | Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa aurkitzea eta aztertzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa interpretatzea, transmititzea eta argudiatzea |
| | | ☑ | Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatu eta ikerketa proiektuak garatzea |
| | | ☑ | Zientzien oinarrizko erregelak eta arauak ezagutzea eta erabiltzea |
| | | ☑ | Ingurumenenarekiko arduratsuak eta osasungarriak diren ohiturak izatea |
| | | ☑ | Zientziaren bilakaera ulertzea eta balioestea |

**2. ebaluaketa**

| **Unitatearen / Ikas egoeraren izenburua** | **BALIOAK** | | **Konpetentzia espezifikoak laburtuta** |
|---|---|---|---|
| 1 FROGA<br>3 Gaia: Substantzia puruak | 35% | ☑ | Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa aurkitzea eta aztertzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa interpretatzea, transmititzea eta argudiatzea |
| | | ☑ | Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatu eta ikerketa proiektuak garatzea |

| | | | |
|---|---|---|---|
| eta nahasteak | | ☑ | Zientzien oinarrizko erregelak eta arauak ezagutzea eta erabiltzea |
| | | ☐ | Ingurumenenarekiko arduratsuak eta osasungarriak diren ohiturak izatea |
| | | ☐ | Zientziaren bilakaera ulertzea eta balioestea |
| 2 FROGA<br>4-5 Gaia: Atomoa | 35% | ☑ | Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa aurkitzea eta aztertzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa interpretatzea, transmititzea eta argudiatzea |
| | | ☑ | Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatu eta ikerketa proiektuak garatzea |
| | | ☑ | Zientzien oinarrizko erregelak eta arauak ezagutzea eta erabiltzea |
| | | ☐ | Ingurumenenarekiko arduratsuak eta osasungarriak diren ohiturak izatea |
| | | ☑ | Zientziaren bilakaera ulertzea eta balioestea |
| EGUNEROKO LANA<br>Liburuko ariketak | 10% | ☑ | Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa aurkitzea eta aztertzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa interpretatzea, transmititzea eta argudiatzea |
| | | ☑ | Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatu eta ikerketa proiektuak garatzea |
| | | ☑ | Zientzien oinarrizko erregelak eta arauak ezagutzea eta erabiltzea |
| | | ☐ | Ingurumenenarekiko arduratsuak eta osasungarriak diren ohiturak izatea |
| | | ☐ | Zientziaren bilakaera ulertzea eta balioestea |
| TALDE LANA<br>Antzinako unitateak eta neurtzeko tresnak | 10% | ☑ | Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa aurkitzea eta aztertzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa interpretatzea, transmititzea eta argudiatzea |
| | | ☑ | Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatu eta ikerketa proiektuak garatzea |
| | | ☑ | Zientzien oinarrizko erregelak eta arauak ezagutzea eta erabiltzea |
| | | ☐ | Ingurumenenarekiko arduratsuak eta osasungarriak diren ohiturak izatea |
| | | ☑ | Zientziaren bilakaera ulertzea eta balioestea |
| JARRERA | 10% | ☑ | Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa aurkitzea eta aztertzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa interpretatzea, transmititzea eta argudiatzea |
| | | ☑ | Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatu eta ikerketa proiektuak garatzea |
| | | ☑ | Zientzien oinarrizko erregelak eta arauak ezagutzea eta erabiltzea |
| | | ☑ | Ingurumenenarekiko arduratsuak eta osasungarriak diren ohiturak izatea |
| | | ☑ | Zientziaren bilakaera ulertzea eta balioestea |
| **3. ebaluaketa** | | | |

| Unitatearen / Ikas egoeraren izenburua | Konpetentzia espezifikoak | **<u>Konpetentzia espezifikoak laburtuta</u>** | |
|---|---|---|---|
| 1 FROGA<br>7 Gaia: Higidura | 35% | ☑ | Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa aurkitzea eta aztertzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa interpretatzea, transmititzea eta argudiatzea |
| | | ☑ | Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatu eta ikerketa proiektuak garatzea |
| | | ☑ | Zientzien oinarrizko erregelak eta arauak ezagutzea eta erabiltzea |
| | | ☐ | Ingurumenenarekiko arduratsuak eta osasungarriak diren ohiturak izatea |
| | | ☑ | Zientziaren bilakaera ulertzea eta balioestea |
| 2 FROGA<br>8 Gaia: Indarrak<br>9 Gaia: Energia | 35% | ☑ | Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa aurkitzea eta aztertzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa interpretatzea, transmititzea eta argudiatzea |
| | | ☑ | Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatu eta ikerketa proiektuak garatzea |
| | | ☑ | Zientzien oinarrizko erregelak eta arauak ezagutzea eta erabiltzea |
| | | ☐ | Ingurumenenarekiko arduratsuak eta osasungarriak diren ohiturak izatea |
| | | ☑ | Zientziaren bilakaera ulertzea eta balioestea |
| EGUNEROKO LANA<br>Liburuko ariketak | 10% | ☑ | Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa aurkitzea eta aztertzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa interpretatzea, transmititzea eta argudiatzea |
| | | ☑ | Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatu eta ikerketa proiektuak garatzea |
| | | ☑ | Zientzien oinarrizko erregelak eta arauak ezagutzea eta erabiltzea |
| | | ☐ | Ingurumenenarekiko arduratsuak eta osasungarriak diren ohiturak izatea |
| | | ☐ | Zientziaren bilakaera ulertzea eta balioestea |
| TALDE LANA<br>Argazki erakusketa<br>(Gure inguruko indarrak) | 10% | ☑ | Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa aurkitzea eta aztertzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa interpretatzea, transmititzea eta argudiatzea |
| | | ☑ | Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatu eta ikerketa proiektuak garatzea |
| | | ☑ | Zientzien oinarrizko erregelak eta arauak ezagutzea eta erabiltzea |
| | | ☐ | Ingurumenenarekiko arduratsuak eta osasungarriak diren ohiturak izatea |
| | | ☑ | Zientziaren bilakaera ulertzea eta balioestea |
| | | ☑ | Fenomeno naturalak ulertzea eta erlazionatzea |

| | | | |
|---|---|---|---|
| JARRERA | 10% | ☑ | Informazio zientifikoa aurkitzea eta aztertzea |
| | | ☑ | Informazio zientifikoa interpretatzea, transmititzea eta argudiatzea |
| | | ☑ | Metodo zientifikoa ikerketa prozesuetan aplikatu eta ikerketa proiektuak garatzea |
| | | ☑ | Zientzien oinarrizko erregelak eta arauak ezagutzea eta erabiltzea |
| | | ☑ | Ingurumenenarekiko arduratsuak eta osasungarriak diren ohiturak izatea |
| | | ☑ | Zientziaren bilakaera ulertzea eta balioestea |

## BERRESKURAPEN eta INDARTZE SISTEMA

DBH guztian ebaluaketa jarraia edo etengabekoa da.Ebaluaketa guztietan errekuperazioak egingo dira eta errekuperaketa horietan menperatzen ez diren gaiak soilik sartuko dira.Horrela gainditu gabeko ebaluaketa bat gainditzeko beste aukera bat egongo da. Ekainean gainditu ez dena gainditzeko aukera egongo da. Ebaluaketa bakoitza gainditzeko ezinebestekoa izango da edukien %50 gaindituta izatea. Ekainean irakasgaia gainditu gabe geratzen bada ikasleek hurrengo kurtsoko edozein ebaluaketa gaindituz gero, aurreko ikasturtea gainditutzat emango da. Ikasleak eskatuz gero, irakasleak udan lan egiteko materiala eskainiko die ikasle hauei.

## ETENGABEKO EBALUAZIO SISTEMA: KALIFIKAZIO TRESNAK eta IRIZPIDEAK

Ebaluazioa hezitzailea izango da. Ebaluazioak ikasleen aurrerapenak identifikatzera eta ikasleek izan ditzaketen zailtasunak hautematera bideratuta dago; irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintzan zailtasun horiek zuzentzen lagunduko duten erabakiak hartu daitezen. Horrela, prozesu didaktikoa ikasleen beharretara egokituko da. Ikasleen ikasketak ez ezik, ikasteko prozesuak ere ebaluatuko dira. Ebaluazioa konpetentziak ebaluatzera zuzenduko da (ez oinarrizko jakintzak ebaluatzera). Konpetentzia espezifikoen ebaluazio-irizpideak izango dira ikaskuntza-prozesuen erreferente. Ikastetxearen autonomiaren barruan eta ikasgelaren ezaugarriei erantzuna emateko, ebaluazio-irizpideak egokitu dira. Ebaluazioa globala, etengabea eta prestakuntzakoa da. Ebaluazioa eguneroko jardunean txertatuta egongo da eta ez soilik bukaeran. Irakasle-taldeak, ikasturtea amaitzean, azken ebaluazio-saioa egingo du ikasleek lortutako konpetentzia-garapena aztertu ondoren.

Ebaluazio eragileak: autoebaluazioa, koebaluazioa eta heteroebaluazioa.

Ebaluazio tresnak eta erremintak: askotariko ebaluazio tresnak erabiliko dira, ikasleen ezaugarri eta premia indibidualetara egokituz (aurkezpenak, galdetegiak, iruzkinak, frogak, ekoizpenak, audioak, bideoak…). Ebaluazio erremintei dagokienez, kontrol zerrendak, errubrikak, balorazio eskalak, etab, erabiliko ditugu.

## METODOLOGIA

| |
|---|
| Programazio honetan erabilitako metodologia ikasle bakoitzaren ikaskuntza erritmoa eta estiloa errespetatzen duten jarduera eta estrategietan oinarritzen da. Ikaskuntza aktiboa eta kooperatiboa sustatzen da, non ikasleek beren ikaskuntza-prozesuan protagonismoa hartzen duten. Horretarako, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, problemen ebazpena, eta egoera errealetan oinarritutako ikaskuntza erabiliko dira, ikasleen motibazioa eta autonomia bultzatuz.<br><br>Materialak eta jarduerak anitzak eta eskuragarriak izango dira, aniztasuna errespetatuz eta ikasleen beharretara egokituz. Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) kontuan hartuta, material didaktikoak eta ebaluazio tresnak inklusiboak izango dira, ikasle guztien parte-hartzea bermatzeko. Era berean, teknologia berrien erabilera sustatuko da, ikaskuntza prozesua aberasteko eta ikasleen trebetasun digitalak garatzeko.<br><br>Azkenik, ebaluazio formatiboa eta etengabea izango da, ikasleen aurrerapenak aztertzeko eta beharrezko egokitzapenak egiteko. Metodologia hau ikasleen motibazioa eta inplikazioa handitzea du helburu, gaitasun guztiak modu integral eta orekatuan garatzeko. |
| **ANIZTASUNARI ERANTZUTEA** |
| Ikasleen aniztasuna kontuan hartzea ezinbestekoa da hezkuntza inklusibo eta kalitatezko bat bermatzeko. Ikasle bakoitzaren behar bereziak eta ezaugarri indibidualak identifikatzen dira, eta horien arabera egokitutako estrategia didaktikoak garatzen dira. Horretarako, hainbat baliabide eta metodologiak erabiltzen dira, hala nola, ikaskuntza pertsonalizatua, taldekatze malguak eta edukiak egokitzea.<br><br>Aniztasunari erantzuteko, irakasleek banakako arreta eskaintzen dute, ikasleen garapen akademikoa eta emozionala hobetzeko. Material gehigarriak, errefortzu-saioak eta testuinguru desberdinetara egokitutako jarduerak eskaintzen dira, ikasle bakoitzaren erritmo eta gaitasunetara moldatuz. Gainera, indartze eta sakontze jarduerak proposatzen dira, ikasleek ikasgaiak ondo menderatzen dituztenean, haien jakintza zabaltzeko.<br><br>Programazioetan, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) oinarri hartuta, aniztasunari erantzuteko estrategiak modu inklusiboan planifikatzen dira. IDUren bidez, ikasle guztien gaitasunak eta estilo ezberdinak kontuan hartzen dira, eta materialak, metodologia eta ebaluazio tresnak egokitzen dira ikasleen premietara. Honela, ikaskuntza esanguratsua eta eraginkorra bermatzen da, aniztasunaren aberastasuna baliatuz ikasle guztiek arrakasta izateko aukera izan dezaten. |